


AIURRI

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



ERREGE EGUNEKO EZUSTEKOA

Bost orduz jarraian, elurra gogotik bota zuen Andoainen. Herrigunean trafiko arazoak sortu ziren. Hori kenduta, gozamena. / 2-3

Goiburu golf zelaia gutxitan bezala zegoen urtarrilaren 7an. Atzealdean Ernio eta Aiztondo bailarako paisaia ederra.

AIURRI

Umorea urte amaieran ez dadila falta

San Silvestre lasterketak urteari amaiera emateko ospakizun izatera iritsi dira Andoainen eta Urnietan, urte gutxiko epean / 10-11



Ur hoditeria berritzeko itxi egin dituzte Kale Nagusia eta Juan Bautista Erro kalea / 6

Urteari amaiera Buruntza mendian, eta urteari hasiera Adarramendira igoz / 12



"Jende mordo dago gaizki birziklatzen ari dena", Ipar Haizea plataformako kideei elkarrizketa / 5

Emakumezko gazteen parte hartzea sustatzeko ekimena Ubitarten / 13



Buruntzako San Martin aztarnategitik Andoaingo herrigunean paisaia zuritua ikus zitekeen urtarrilaren 7an. AJURRI

Sorpresa itzela Errege opilean

Elurra 600 metrora botako zuela jakinarazi bazuten ere, aurreikuspena ez zen Andoainen bete. Elurteak larunbat arratsaldean herrigunea bete-betean jo zuen, bost orduz jarraian. 2010eko urtarrilaren 9tik hona, elurterik handiena izan da.

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Etxean, familian egoteko eguna da Errege eguna. Tradizioak, gainera, opila agintzen du. Goizean goiz Zumea kaleko Arruti gozotegitik pasa zenak kafetegi osoa errege opilen kaxa laranja betetik zegoela ikusi zuen. Kanpoaldetik ez zen bezerorik ikusten, bertan izan arren. Eserlekuak, mahaiak, erakusleihoa, apalak..., eta hala ere, toki faltan ziren. Sorpresa itzela ekarri du aurtengo opilak Andoainera, txoko guztiak elur lodiz betez. Ezusteko itzela, eta bizi izandako esperientziaren arabera, gazia eta gozoa izan zen. 14:30ak aldera, leihotik begira, paisaiak Eguberriari amaiera emateko postal ederra eskaintzen zuen. 17:30ean, etenik gabe gogotik ari zuela, kotxez herrigunera hurbildutako gonbidatuak kezkatzen hasi ziren. Postala zirur-

diena, irudi kezkarri bilakatu zen. Elurrarekin horixe gertatzen baita, gozatzeko eta sufritzeko izaten dela. La Salle etorbidean biak batera gertatu ziren, norberaren egoeraren arabera. Urigain kultur etxetik zertxobait gora iturria dago, Goikoplaza aldera begiratzeko balkoito modukoa osatuz. Hantxe jarri ziren, gozo, ikusle ugari. Ikuskizuna baitzegoen errepidean. Parean, La Salle ikastetxearen atzealdean, ibilgailuak larri eta gidariak estu bidegurutzean. Gurpilen mugimendu kontrolaezinekin, batek baino gehiagok

**ELURTEAK
EGUBERRIARI
AMAIERA EMATEKO
POSTAL ITXURA EMAN
ZION HERRIGUNEARI**

listua irentsi behar izan zuen, opilaren gozotik batere antzik ez zuena.

Errege eguneko bazkarira hurbildutako senideak ibilgailua hartzen hasi zirenean, hamaika eragozpen sortu zen. Bidegurutzetxe estu hori arazo bakarra baltitz, gaitzerdi! Kaos txiki horretan udaltzain guztiak martxan zeuden, kalean.

Herrigunearen gaikaldeak beldurrezko postalak zirudien: Kaletxiki itxi behar izan zuten ibilgailu bat bere bidetik atera eta trafikoa oztopatzen zuelako. Bitartean, Elizondo tabernatik gertu, bi auto gidari elkarren artean izandako talka nola bideratu erabakitzen ari ziren. Une berean, metro eskasera, auto txiki bateko gidaria estu zebilen. Goikoplazatik gora igo nahi zuen, baina ezin. Aurreko gurpilek abiada bizian bira egi-

ten zuten, zentimetro bakarra ez igotzeko.

Stop. Trafikoa itxi behar izan zuten, eta nola edo hala ataka estu horretatik ateratzeko neurriak hartu: Goikoplaza ibilgailuen aparkaleku modura bide-

ratu, talka egin zuten autoen arteko atestatua osatu, Urigain kultur etxearen pare horretan trafikoa bideratu eta autoak bertan gera ez zitezten autoen atzean jarri eta bultza egin... Eskuak bete lan aritu ziren la-

Elur giroan gidatzeko aholku sorta

Gidari modura elur garaian egingo dugun bidea ezaguna izan daiteke. Eta hala eta guztiz ere auzartegi aritzea arriskutsu da. Zuhur jokatzeko jakin behar da. Beldurti jokatzeko ere ez da ona. Erraz esaten da, horrelako egoera zailetatik irteteko urduritasunak presaka aritzera eramaten gaituelako. Akats handia da. Azeleragailua indarrez zapaltzea, freno bortizki zapaltzea edota bolantearekin ezker edo eskuin azkar batean biratzea ibilgailua bere bidetik ateratzeko edota irrist egiteko lehen urratsa izan ohi da. Kontuz, gero.

Gidatzean eman beharreko pauso guztiak mantsotu egin behar dira. Eta abiadura geldotu, ahal dela ibilgailua geratu gabe. Berrito abiatzea kostatzen baita, zorua hain labankor dagoenean. Frenoari eman behar bazaio, hori ere mantsu-mantsu. Normalean freno zapaldu eta ibilgailua geratzeko hoge metro behar izaten baditugu, elurretan ibilgailua geratzeko ehun metro behar izaten dira.

Ibilgailuen arteko distantzia nabarmen zabaldu. Araudiak agintzen duen distantzia hirukoiztea zuhurtziaz jokatzeko da. Adibide erraza: Aldapan, La Salle etorbidearen kasuan, aurreko ibilgailuak zailtasun egoera gainditu arte atzetik zain egon. Eta, ondoren, mantsu mantsu ekin eta martxa motzak erabiliz jarraitu.

Neguko gurpilen erabilera, trakzioaren aldean ipinita, guztiz gomendagarria da. Prezioan ez dago ia alderik, 15 euro inguru.



Arriskua Goikoplaza eta inguruetan



Galtzak bete lan Udaltzaingoak hainbat lan egin behar izan zituen, ia denbora berean: Trafikoa bideratu, gidariei lagundu, atestatuak osatu...



Oinez ibiltzeko ere larri Oinezkoek Erroitz kalean gora dauden etxebizitza multzora gerturatzeko zuhurtzia handiarekin ibili behar zuten.



Arriskugunea Besabin elurra gogotik egin zuen, eta errepedean zentimetro batzuetako altuera hartu zuen. Ibilgailua bertan zutenentzat, abiatzea ez zen erraza izan.



Bidean trabatuta Leizotz aldetik, La Salle etorbidean gora egiteko bihurgunea zebra-bidea dago. Ibilgailuek berritoki zail izan zuten.



Rallyen pareko ikuskizuna Argazkian, eskuinaldean, ikusle ugari bertaratu zen ibilgailu gehien ibilbide sigi-sagatsuari erreparatzeko.



Paraje ederrak Adarramendi zuri-zuri zegoen. Leizotz auzunetik gora itxura ederra zuen. Urnietara jaitsita, Iruiraindik harago, elurteak ez zuen herrigunea zuritu.

guntza ematen, hainbat boluntarioekin batera. Herriaren gailaldean gertatutakoaz gain, ezbehar txiki gehiago izan zen. Aipatzen hasita, Joakin Larreta etorbidean ibilgailu batek tren geltokiaren itxitura jo zuen, eta elurraren pisuarekin Olagain auzunean zuhaitz adarrak erori ziren.

Etxearen epelean, egoera zail hura ikuskizun bilakatu zen. 2018an, eskuko gailu teknologikoen aroan, on line gaude. Euskal kantu ezaguna egoerara

egokituz, "Bizitza streaming bat da, guretzat hain justu...". Herriguneko hainbat txokoetako irudi eta bideoen kontura segundurik galtzerik ez zegoen. Netflix bigarren planora igaro zen, *Andoaingo telesaila* inte-

BURUNTZALDEKO MIKROKLIMA BEREZIAN, ELURTEAK ANDOAINEN ERAGIN HANDIA IZAN ZUEN

resgarri zegoen. Egun batez, bederen, *winter is coming* begien parean genuen.

Sare sozialetan aditu eta aritu diren askorentzat egoera harri-garria zen. Lasarte-Oriako, Hernaniko edota Urnietako berririk ez zegoen ia. Nola ba! Herrigune haietan elurraren arrastorik ez zegoen eta. Buruntzaldeko mikrokliman, elurteak Andoaingo herrigunea bete-bete kolpatu zuen. Inbidia sanoarekin idazten zuten elurraren gose ziren urnietar txiolariek. Hango

udaltzainei eta sorosleei galde-tu beharko. Lasai asko egoten da eta, babesean gozo.

Badira fikzioa eta sare sozialak hain gogoko ez izan eta elurra eskuekin ukitu nahi dutenak. Bat baino gehiago, etxeko txi-

ELURTEAK GOIBURU ETA ADARRA INGURUAK ZURITU ZITUEN, URNIETAKO HERRIGUNEA EZ

kienak lagun hartuta, kalera jaitsi ziren elurteetan klasiko diren elur panpinak egitera. Askoren artean, panpinak egiten aritu ziren Etxeberrieta plazan, Goikoplazan edota Goiburuko belardietan.

Urtarrilaren 6an elurra gogotik egin zuela gogoratuko dute askok. Gehienek atsegin handiz, beste batzuk ordea –herrira ko-txearekin hurbildutako bisitariak– gozo hasi eta gazi amaitu zuten eguna. Andoain atzean utzi arte ez ziren lasai izan.



**Txotx
2018**

**SAGARDOTEGI GIROKO
EUSKAL KANTU LIBURUXKA**

Laster Aiurriren eskutik

KOMIKIA

GARBIÑE UBEDA MARRAZKILARIA



ZABALIK

JON ANDER UBEDA AIURRIKO ZUZENDARIA

Diseinu aldaketa

Aste honetakoak bestelako itxura dakar. Ezberdina. Eta, halere, irakurleen eskuetara iritsi denak Aiurri astekaria izaten jarraitzen du. Tamaina ere aldatu egin da, erraz aldera daiteke orain arte argitaratutako edozein astekariarekin. Pittin bat estutu eta txikitu egin da, tamainan. Bere baitan, ordea, tokiko eta euskarazko albisteak biltzen darrai. Horixe baita Aiurriren DNA, eskualdeko nortasun hitzak lantzea.

Iazko udaberrirako iragarritako aldaketa hura bederatz hilabeteko atzerapenarekin gauzatu da. Orduko promesa hura bete gabe geratu zen, eta berrikuntza urtea aldatzearekin batera eman da. Arrazoia ez da ezkutatu behar. Lantalde txikia da Aiurrikoa, eta diseinatzailea baja hartuta zegoela, gainerako lankideak bide berriak urratzera ez ginen ausartu. Oraingoan bai, lantaldea osatuta, urtea Aiurri astekari berrituarekin abiatu da. Tokikom tokiko hedabideen arteko sinergiak baliatuz, eta Lasarte-Oriako Txintxarri astekariak duela urtebete egin bezala, Aiurri ere bere egin du Goiena astekariaren diseinua. Molde aldaketak edukien lanketa berria eragin du: Erakargarria izan nahi du, informazio osagarri gehiagorekin, irakurketari ekiteko deigarriagoa. Erredakzio taldetik irakurleak hori ere nabaritzea nahiko genuke.

Aste honetako Aiurri eskuetan, lehen bistadizoan, aldaketa nabarmena da. Bigarren bistadizoan beste idazkera batean lan egiteko saiakera antzematea nahiko genuke. Irakurle, zure iritzia balio handia du guretzat. Emailaz edo whatsapppez zure ekarpena atsegin handiz jasoko genuke (diseinua@aiurri.eus, 619 163 537).

PAPEREAN ETA SAREAN GERTUKO INFORMAZIOA ZABALTZEKO IRRIKARI EUSTEN DIOGU

Duela ia hamalau urte abiatu zen Aiurri astekaria, hutsune ezberdinak betez. Alde batetik, Andoainen aktualitateari eusteko Aiurri hamaboskariaren edizio osagarri modura sortu zen. Bestetik, Beterrri-Buruntzara begira, Urnietan euskarazko

tokiko informazioan zegoen hutsunea bete nahi genuen. Abiatu ginen, bidean zailtasunak igaro genituen, tarteka asmatu eta beste batzuetan hanka sartu dugu. Urtea joan, urtea etorri, bada aldatu ez den jokabidea: Paperean nahiz sarean gertuko informazioa zabaltzeko irrikari eustea. Jantzi berria soinean, aurrera goaz. Hurrengo erronka: astekariaren 15. urteurrena. 2019an iritsiko gara efemeride horretara.

GUTUNA

Prest gaude

SARE URNIETA ETA ANDOAIN
Jada dakizuen bezala, aurren ere urtarilaren 13an manifestazioa antolatu da Bilbon "Elkarrekin aurrera egiteko prest gaude. Giza eskubideak, konponbidea, bakea" lemapean. Urtero errepikatzen den zita bilakatu da, nahiz eta urtero azkena izan dadin nahi dugun. Egoera aldatzen ez den bitartean ordea, zita errepikatzen jarraituko dugu, preso eta iheslarien giza eskubideak errespetatu daitezten eta auzi honi irtenbidea emateko urratsak emateko prest gaudela adierazteko.

Elkarbizitza egonkorra eta iraunkorra eraikitze, beharrezkoa deritzogu presoen giza eskubideen edo trataera humanitarioaren kontra doazen espetze politikak

aldatzea, nazioarteko estandarrekin bat ez doazen salbuespen neurriak bertan behera utzi eta legeak egun bizi dugun errealtaterara egokitzea. Hala nola: gaixo larrien egoera, zigorra bete duten presoak aske uzteko ezezko jarrera, familiak zigortzen dituen urruntze eta sakabanaketa (azken urtean 9 istripu eta azkena nahiko larria eragin ditu) eta gurasoetako bat edo biak espetxean dituzten "Motxiladun" umeen egoera injustua.

Giza eskubideak maila guztietan errespetatuak izatea, gizakion berezko duintasun eta eskubide ukazina da. Kontuan izanik kartzelatuak dauden euskal presoen eta beraien familiartekoen giza eskubide asko ez direla

errespetatzen, gizarte osoari dagokigu elkarlanean gizakiaren oinarriko eskubide eta askatasunaren begirune orokorra ziurtatzeko ahalegina egitea, ekimen desberdinetan parte hartuz, gure prestutasuna azalduz...

Larunbat honetako manifestaziorako deia, beste aukera bat gehiago da giza eskubideen edo luzeegi doakigun egoera gatazkatsuari irteera duina aldarrikatzeko. Abenduaren 9an Parisen egin bezala, Bilboko kaleak jendez beteta, ozen oinarriko eskubide demokratikoak aldarrikatzeko; preso gaixoen egoerari, urruntze politikari, familiartekoen joan-etorri amaigabeen sufrikarioari, Motxiladun umeen egoerari..., irtenbide duin bat aldarrikatzeko.

POSTONTZIA

Sinatutako gutunak argitaratzeko posta elektronikoak: andoain@aiurri.eus | urnieta@aiurri.eus



Aiurri eskuragarri:
Ebez ebeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 37 eurokoa da. Urnietan, 31 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
andoain@aiurri.eus
www.aiurri.eus

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.
Erredaktoreak: Xabier Lasa, Olatz Lasa.
Maketzaileak: Maddi Trutxuelo.
Kudeaketa, harpidetak: Garbiñe Ugarteandia. idazkaritza@aiurri.eus
Publizitatea: Fer Irazu. publizitatea@aiurri.eus
Banatzaleak: Mikel Arregi (Andoain), Isabel Salaberria (Urnietan).
Diseinua: Goiena Komunikazio Taldea
Zorion agurrak, merkatu txikia: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus
Whatsapp: 619 163 537
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.
Inprimategia: Zeroa Multimedia.



PROTAGONISTA

"Jende mordoa dago gaizki birziklatzen ari dena"

KEPA OLAIZ IPAR HAIZEA PLATAFORMAKO KIDEA

Erredakzioa ANDOAIN

Ipar Haizea Andoaingo zenbait herritarrek sortutako kolektiboa da, funtsean erraustegia osasunarentzat kaltegarria dela aldarrikatzen duena. Joan zen abenduaren 23an, ondo bereiztearen aldeko ekintza egin zuten Andoainen, orokorrean zeinen gaizki bereizten den erakutsiz. Poltsa ezberdinetan bilduta zeuden errefusarako 27 kilogramo hondakin hartu, plaza erdian erakutsi, eta atalka bereizten hasi ziren. Honakoa izan zen atera zuten emaitza:

- Ontzi arinak: 5,1 kg. %18,75
- Papera, kartoia: 7 kg. %25,73
- Organikoa 3,8 kg. %13,97
- Oihalak: 2,8 kg. %10,29
- Errefusa: 8,5 kg. %31,25

Zein da ekintza honekin agertzen duzuen asmoa?

Udalari eta biztanlegoari oro har, nahiz eta hobekuntzak izan, hondakinak sailkatzeko garaian zer hobetua badagoela erakutsi nahi diegu. Errefusako edukiontzitik gaur



Ipar haizeako kideek errefusarako poltsa batzuk ireki eta denetik topatu zuten. AIURRI

bertan poltsa batzuk hartu eta zabaldu egin ditugu. Frogatu ahal izan dugunez, errefusari dagokion edukiontzian papera, plastikozko ontziak edota hondakin organikoak topatu ditugu. Horiek beste

edukiontzietarako gaiak dira, ordea.

Denetik topatu duzue, beraz, poltsa bakarrean.

Bai, eta bitxikeria modura, eskuko telefono bat topatu dugu hondakinaren artean.

Hondakinak horrela biltzen baditugu, zabortegira edota errauskailura bideratuko dugun zaborrarekin astakeria handia egiten ari gara.

Lagin hori ikusita, hobeto sailkatu behar dela adierazi nahi duzue.

Argi dago. Eskuko telefono horrek ez luke hor agertu behar. Kutxakorra da, oso. Pentsa hori errausten dela! Hor pila kutsakorrak doaz.

Eta topatu dugun hondakin organiko hori guztia konpostara bideratu beharko litzatekeela uste dugu. Zer egingo badugu, hondakinak sailkatzerako garaian. %90a sailkatzera iritsi gaitzake, erraz.

Bilketa hobe egin beharko genuke, hondakinak etxetik ateratzean ibilbide egokia egin dezaten.

Zer nolako erreakzioa eragin duzue egiten ari zaretena ikustera hurbildu zaizuen herrikideengan?

Gehien erantzuna honakoa da: "Ni ondo bereizten ari naiz". Ez dugu zalantzan jarriko hori adierazi diguna, baina Andoainen jende mordoa dago hondakinak gaizki bereizten ari dena.

Bilketa sisteman aldaketa garrantzitsuak egin beharko lirateke gauzak hobeto egiteko.

HAU ERE BADUGU!

Txinpartak Facebook sare sozialean



Zalaparta pizteko tresna da Facebook. Norberaren sumintasanari txinpartak ateratzen laguntzeko erabiltzen da maiz, eta sumintasan horri erantzuteko herrikide gehiago kateatzen dira infinituraino iristen den mezu trukaketan. Urnietan gertatu berri da, San Silvestre lasterketako sarien harira, herri mailako hizpide nagusi bilakatzeraino. Ika-mikaren erdian, Poxta Zahar lasterketaren antolatzaileak komunikatua argitaratu zuen sare sozialetako kritikak deitoratzeko. Antzeko 'ekaitz digitala' sortu zen Buruntzako jaietan oilasko biltzaileen itxaferoen harira.

Iruzkina aiurri.eus webgunean

Facebook sarean ez bezalaxe, hedabideetako webguneetan informazioa iruzkinen gaitetik nagusitzen da. Alde handiz, gainera. Tarteka, ordea, iruzkinak argitaratzen dira. Sare sozialetan ez bezala, Aiurri.eus gunean mezu horiek gainbegiratu egiten dira iruzkin iraingarriak argitaratzea saihesteko. Andoaingo San Silvestre lasterketaren harira, Aiurri.eus webgunean bi iruzkin argitaratu ziren. Lehenak aurrealdean lehen ibili ziren korrikalarien jokabidea kritikatzeko: "Irabazleak egin behar duena bere mailakoekin leihatzea da, eta ez lasterketa popular batean aritu". Bigarrenak, korrikalarietako begirune falta nabarmentzen zuen: "Lasterketa bukatzerakoan urik ez egotea triste da". Tira, lasterketa berri samarra da eta ziur gaude antolatzaileek detaile horiek hobetzeko neurriak hartuko dituztela.

ITURRI ONETIK

Frankismo garaiko biktimen bulegoa

Gipuzkoako erakunde nagusiak, Foru Aldundia eta udaletxeak, memoria historikoa berreskuratzeko ekimen ezberdinak burutzen ari dira. Andoainen, Frankismo garaiko biktimen bulegoa zabalduko dute hilaren amaieran. Ekimena Andoaingo Udalak eta Oroitz, Andoainen elkarteak aurrera eramango dute, elkarlanean. Garai hura bizi eta giza eskubideen urraketak pairatu zituztenei begira, urtarriletik martxora bitarte arreta bulegoa zabalduko dute Basteron.

GORA ETA BEHERA



Lehia eta festa bereizten duen kirolaria

Jon Iturralde Barrutia korrikalariak San Silvestre lasterketan dir-dir egiteko aukera bazuen, aurrealdean ibiltzeko maila sobera baitu. Egungo Gipuzkoako maratoi txapelduna da. Urte zaharreko lasterketan, ordea, zaldi gainean doan jockeyaren mozorroa jantzita jokabide umoretsua hartu zuen. Lehiarako lasterketa ugari dago. Zorionak Jon, bejondeizula!





Urtarrilaren 8an, goizeko 08:00etan, ibilgailuen pasabidea galarazi zuten Kale Nagusian. AIURRI

Hilabetez bidea itxita, lanak amaitu arte

Ur hoditeria berritzeko lanei ekin diete Kale Nagusiaren gaikaldean, eta Juan Bautista Erro kalean. Lehen fasearen hasiera izan zen, lauzpabost astez luzatuko dena. Auto gidariak ibilbide alternatiboetara egokitzen ari dira lehen egun hauetan

Erredakzioa ANDOAIN

Eguberrietako oporraldia amaituta, joan zen astelehenean obraren esleipena lortu duen Campezo enpresako beharginek Kale Nagusiaren hasierako eta Juan Bautista Erro kale osoko trafikoa ixteari ekin zioten. Goizeko zortziretan hasita, lan eremutik azken ibilgailuak atera, lanerako tresneria sartu eta edukiontziak Kaleberriko biribilgunera bideratu zituzten. Lanen hasiera aurreko astetik iragarrita zegoen, seinaleztapen bidez. Eta, hala ere, kaleen itxierak auto gidari asko ezustean harrapatu zuen. Bereziki, goizeko bederatzia aldera. Gehien-gehienak haurrak ikastetxera eramateko herrigunean barrena zebiltzan gurasoak ziren. Buruz ikasitako ibilbideak berregin beharko dira, behin-behineko ibilbideetara ohituz. Laster egokituko dira, bertako gidariak behintzat bai. Hala beharko du izan, lehen fase honetan lanen iraupena lauzpabost astea izango baita.

Inauteriak iritsi bitarte, hortxe-hortxe.

Ur hoditeria zaharkitua berri-ur beharra zegoen, bizilagunei ur zerbitzu hobea eskaintzeko eta hoditeria zaharkituagatik lurrazpian barreiaturiko milaka ur litroen galera saihesteko. Bide batez, ur beltzak edo ur zikinak bideratuko dituzte. Eta baita euri urak ere.

Juan Bautista Erro eta Kale Nagusiko lanak amaituta, Agustín Leitza eta Dr. Huitzi kaleetako zorua altxatzeari ekingo diote. Obraren fase guztiak egiteko lau hilabeteko denbora tarte aurreikusi dute, eta milioi bat euroko gastua. Udalak joan zen azaroan xehetasun guztiak eskaini zituen, Basteron antolatutako bilera irekian.

Ibilbide ezberdinak egoera berrian

- Anbulategitik Kaleberrira: Agustín Leitza kalea hartu, eta segidan Joakin Larreta etorbidea, Olagain pareraino. *Churreria* aldera jo eta handik, eskuinera, Kaleberrira. Ezkerrera, berriz, Zumea plazara.
- Zumea plazatik Goikoplazara: *Churreria* eskuinera hartu Olagain aldera, Joakin Larretan metro batzuk egin eta seinaleak jarraituz Bertxin kaleko norabidea hartu beharra dago. Handik Plazaola kale osoa zeharkatu, La Salle etorbidera iritsi arte. Aldapan behera jaitsi eta Dr. Huitzi aldera edo Kaletxiki aldera joan gaitzake.
- Txistoki pasealekutik Goikoplazara: Txistoki pasealekutik, N1 errepidean sartu eta Ama Kandida etorbidean sartu. Berehala, Rikardo Arregi kalera igo eta Agustín Leitza kalea zeharkatu.

Aierbeko pasabidea zabalduko dute lanek iraun bitartean

Asteazken goizetik zabalik dago goizetik gaura bitarte. Asteburuetan itxita egongo da



Aierbeko pasabidea Joakin Larreta eta Leizaran institutuaren artean dago. AIURRI

Erredakzioa ANDOAIN

Kale Nagusiko ur hoditeria berritzeko lanek irauten duten bitartean, Udalak Aierbeko pasabidea ibilgailuentzat irekitzea erabaki du. Asteazkenean zabaldu zuten, eta astean zehar ibilgailuen pasabiderako 07:00etatik 20:00ak arte zabalik izango da. Asteburuetan itxita egongo da. Udalak herriguneko azpiegitura lanek sorturiko eragozpenak arintzeko hartu du erabakia, eta tentuz gidatzeko eskaera luzatu: "Bide horrek dituen arriskuez jabetu daitezene eska-

tu nahi diegu herritarrei. Kontuz ibil daitezela, oinezkoek lehenetsuna dute".

Aierbeko pasabidea duela hilabete batzuk ixteko erabakia hartu zuen Udalak. Pasabidea erabiltzen duten hainbat gidari aurka agertu ziren eta berriro zabalteko sinadura bilketari ekin zioten. Udalak eskaera horiek guztiak jaso zituen baina oinezkoen segurtasuna lehenesten jarraitzea erabaki zuen. Aste honetan, Kale Nagusiko lanak iraun bitartean, behin behinean zabalteko baimena eman du.

Ipuin kontaketa saioa Basteron, Bidaideren eskutik

Datorren urtarrilaren 18an arratsaldeko 17:30ean hasita, Maialen Zubeldiaren eskutik

Aiurri komunitatea

Mintzalagunak

ANDOAIN

Bidaide egitasmoaren bitartez euskaraz trebatzeko aukera eskaini nahi zaie Andoaingo familiei. Urte berriarekin batera, Bidaideko ekintzak martxan hasi dira berriro. Urteko lehena ipuin kontaketa saioa izango da. 17:30ean 3-5 urte bitartekoentzat, eta 18:00etan 6-8 urte bitartekoentzat. Ez galdu aukera eta parte hartu!

Mintzalagunak Andoainean euskara praktikatzeko aukera

ematen duen proiektua da. Haiei begira, irteera antolatu dugu Asteasu-Alkiza artean dagoen Urmara museora. Koldobika Jauregi eskulturgileak buru duen gunea da Urmara museoa, kontenplazio espazio bat bezala sortua. Espazioa baso maldatsu batean kokatuta dago. Haritzak, pagoak, lizarrak, garoak..., itzala eta freskura. Euskal Herriko beste zenbait txokotan bezala. Urtarrilaren 27an izango da. Goiza pasa atsegina, hamaietakoa eta guzti! Animatu eta parte hartu!



Abenduaren 21ean deitu zuten bilkuran onespina eman zioten 2018ko aurrekontuari. AIURRI

Inbertsioen bidetik jarraitzeko aurrekontua

EAJ-PNVren aldeko botoekin, EH Bilduren abstentzioarekin eta PSE-EEren aurkako botoarekin onartu zuten 2018rako Udal aurrekontua. Orotara, 9.483.825 eurokoa da. Kiroldegiaren berritze lanek garrantzia berezia hartuko dute, inbertsioen atalean

Erredakzioa URNIETA

Inbertsioen bidetik jarraituko dutela nabarmendu zuten, eta horretarako aurten ere ia milioi bat euroko partida onartu dute. Urnietako Udalaren egoera ekonomikoa orekatuari esker, diruzaintzan pilatutako soberakinarekin beste bi inbertsio handiri aurre egingo diote: kiroldegiaren erreforma eta Eteneta-San Juan kaleko igogailua. Aurreko urteko parte hartze prozesuan herritarrek aukeratutako bi egitasmoak izan zirela gogorazi nahi izan du Urnietako Udalak. Laster iragarriko dute aurtengo parte hartze prozesua, zeinaren bitartez inbertsio gehiagotarako 125.000 euroko partida bideratuko duten. Beste 80.000 euro gehiago etxebizitzak sustatzeko erabiliko dituzte.

2017aren jarraipena

Urrakako igogailua, Sarobe, Udaletxeko eta Lekaioko berokuntza sistema, Lizardiko saneamendua, Txoritagaingo apartakalekuak edota Plazido Muxika plazako irisgarritasuna bideratzeko partidak bideratuko dira aurtengo aurrekontuan.

Bilketa selektiboaren tasa %68,8raino igo da Urnietan

Urnietako Udalak aste honetan jakinarazi duenez, "urrian abian jarri zen zabor bilketa sistema berriarekin bilketa selektiboaren tasa %68,8raino igo da". Udazkenaz geroztik, beraz, igoeira nabarmena izan da.

Trailean, sistema berria martxan jarri aurretik, %53,9koa zen bilketa selektiboaren tasa. Urrian, bilketa selektiboaren martxan jartzean, %61,1era igo zen tasa, eta azaroan %68,8ra.

Bildutako materia organikoaren kilogramo kopuruari dagokionean, igo egin da urritik azarora, 36.770 kg-tik 44.280 kg-ra, hain zuzen. Errefusaren bilketa, berriz, jaitsi egin da 97.803 kg-tik 72.204 kg-ra.

Datu horiek lortzearen emaitza, herritarrek bilketa sistema berrira egokitzeko egin duten ahalegina izan dela azpimarratu du Udalak. Eta horregatik, eskerrak eman nahi dizkie herritarrei, eta aurrerantzean jarrera berberarekin jarraitzera animatzen ditu.



Eguberrietako albistegia

AIURRI.EUS

ALBISTEAK, ARGAZKIAK, BIDEOAK, AGENDA

Eguberrietako hitzorduak bi herrietan

Tradizio handiko egunak igaro dira. Eguberrietan astekaria argitaratu ez denez, hitzordu horietako argazkiak eta bideoak Aiurri.eus gunean argitaratu dira



Iluntzean iritsi ziren Olentzero eta Mari Domingi herrigunera. Argazkian, laguntzaile taldearekin.



Aita Larramendi Ikastolako trikitilari taldea, Gabon kantarien aurretik, Nafarroa plazan. Iluntzean, helduenek Olentzero eta Mari Domingiri harrera egin eta eurekin batera herrian barrena kalejira egin zuten.



Ondarretako ikasleak Olentzeroren panpinarekin Bastero plazan, gabon kantari irten aurretik. Kantuz alaitu zituzten herriko kaleak.



Gaspar, Meltxor eta Baltasarren pajeak Andoaingo haurren eskutitzak jasotzen aritu ziren kalean zehar, urte zahar egunean.



Musikariak lagun, La Salle Berrozpeko ikasle, irakasle eta gurasoak Gabon kantari irten ziren. Herrigunean zehar kalejiran ibili ziren, ohitura zaharrak berrituz. Talde handia batu zuten Goikoplazan.



Susana Cencillok zuzentzen duen Soinuak Musika eskolak Gabon kontzertua eskaini zuen Basteron, joan zen abenduaren 23an. Adin tarte ezberdinetako musikariak protagonista bilakatu ziren.



Abenduaren 23an Etxeberrietako gaztain jatera herritar ugari hurbildu zen. Mari Domingik eta Olentzerok gutunak jaso eta hurrekin argazkiak atera zituzten.



Egape dantza taldekoen eskutik, Olentzero eta Mari Domingi Urnietara iritsi ziren abenduaren 23an. Astoa lagun, eta musikariak eta dantzariak gertu zituztela, haurren eskutitzak jaso eta eurekin hizketan aritzeko patxada handia eduki zuten.



Usadiozko sagardo lehiaketako irabazleak, Urnietako Santomas egunean. Sarituak: Jone Atxaga (Pagoaga), Idoia Gorroño (Goikoetxea) eta Ane Loinaz (Altzibar).



Sagar-tarta lehiaketako lehen bi sarituak, Iñistorrak antolatzen duen Santomas egunean: Marian Mujika irabazlea eta Manoli Sorondo bigarren sailkatua.



Santomas egunean, Udalak Urnietako ikasleen artean egindako Zorion-txartelen, Olentzeroen eta Jaiotzen lehiaketako sari banaketa ekitaldia antolatu zuen. Olentzero eta Jaiotza ezberdinak ikusgai izan dira Eguberrietan, merkatalguneetan.



Baltasar erregeak, gainerako biek bezala, lana gogotik egin zuten. Kalejiran ibili eta gero, adierazpen bana egin zuten udaletxeko balkoitik. Haurrak zain zituzten.



Errege Magoei ere harrera jendetsua egin ohi diete Andoainen. Hitzalditxoa eskaintzera zihoazela, hainbat haurren agurra jaso zuten udaletxeko eskilaratan.



Eguraldiaren aurreikuspenak txarrak zirela eta, urtarrilaren 5eko kabalgata bertan behera geratu zen. Meltxorrek Olentzerok adina lan izan zuen Elizan haurrei egindako harreran, hark piztu baitzuen haur gehienen arreta.



Pausokako kideek txalo zaparrada jaso zuten, baita mozorrotutako korrikalariak ere. AIURRI

Urteari agur esateko kirol ospakizun ederra

LASTERKETA Lasterka Itzuli ekimenak San Silvestre lasterketaren edizio berria antolatu zuen, oraingoa ere arrakasta handiarekin. Andoaindarrek kirola eta ospakizuna jarduera berean uztartzerik badagoela erakutsi dute, beste behin ere

Erredakzioa ANDOAIN

Andoaindarrak hitzordu beraren baitan biltzen dituen egun seinalatua bilakatu da, abenduaren 31 goizekoa. 450 lasterkaritik gora biltzea oso datu ona da. Proporzioan igotzen da horrelakoetan bide bazterrean gerturatzeko den herritar kopurua. Etxekoek eta lagunek osatu ohi dute lasterkariak abiatutako ospakizuna. Txalotu beharra dago mozorroa jantzita lasterketaren gatz eta piper bilakatzen direnak ere. Askoren artean, urte hasierako kanpaikadak irudikatu zituzten Emeki-emeki taldekoak, Leitzarango 31 Lokomotorak irudikatu zuen lagun koadrila, Pausoka elkarteko Andoaingo eta Urrietako kideak, lasterketa itxi zuten Irrist Irri patinatzaileak...

Kirol lehia bigarren mailako bilakatu zen. Gizonezkoetan Rodriguez eta Alba nor baino nor aritu ziren; azken metroetako ihesaldi saiakeratan, Mikel Rodriguezen azkena izan zen txapela buru gainean janztea ahalbidetu ziona. Martxorako sasoiko egon nahi luke Rodriguezek, "baina etxean aritzeak hegala eman dizkit" aitortu zuen helmuga zeharkatu eta



Rodriguez eta Etxezarreta Lasterka Itzuli aurtengo lasterketako irabazleak. AIURRI

berehala. Behin lasterketa amaituta, luze egon zen Ibai Albarekin besarkatuta. Garaipena biena balitz bezala.

Emakumezkoetan, Etxezarreta nagusitu zen, hasiera-hasierratik aurrea hartuz. Pozarren

zegoen: "Lasterketak igandearrekin bat egitean, aurtengoan parte hartu ahal izan dut".

Gazte asko, eta emakumezko ugari. Horixe aurtengo lasterketak utzitako beste berri pozgarria.

MOZORROTUTAKO LASTERKARIAK PROBAREN GATZ ETA PIPER BILAKATU DIRA, BEHARREZKOAK

AIURRI.EUS GUNeko ARGAZKIEN ATALEAN PARTE HARTZAILE GEHIENEN ARGAZKIAK IKUSGAI DAUDE





Menta, Cuenca, Martinez, Arruti, Santervas, Isasi. Aurtengo San Silvestreko podiuma. AIURRI




Euria, haizea, hotza,... eta halere umoretsu

LASTERKETA Urte zaharreko lasterkariak haizea eta euria bidelagun izan zituzten, Urnietan. Ehun partaide irten ziren haurren eta helduen lasterketetan. Bi lasterketako argazkiak ikusgai daude www.aiurri.eus gunean, argazkien atalean

Erredakzioa URNIETA

Artaldea babesean bezala, hala-xe bilduta zeuden lasterkariak Kontzejupean. Gaztetxoak izan ziren eguneko lehen ausartak, eta haiei segida emanez, eguraldiari aurre egin zioten ia ehun kirolarik. Ospakizuna izan zen denentzat, lehia gutxirentzat. Gizonezkoetan Asier Martinez nagusitu zen, eta podiuma Javi Mentak eta Norman Cuenkak osatu zuten. Emakumezkoetan Ainhoa Arruti izan zen irabazlea, Elena Santervas eta Andrea Isasiren aurretik.





Adarramendira, aurtan, kontu handiarekin igo beharra izan zen haizetea oso bortitza baitzen. ANDONI URBISTONDO

Urte zaharra Buruntzan, urte berria Adarran

MENDIZALETASUNA Ostadar eta Euskaldunari esker, urtea amaitu eta urtea hasi, mendian egin daiteke. Abenduaren 31n Buruntzara igoz, eta urtarrilaren 1ean Adarra zapalduz. Bietan saria dago: batean, hamaiketakoa eta, bestean, salda beroa

Erredakzioa ANDOAIN

Eskualdearen muinean dauden bi mendietara igotzeko tradizioa errotzen ari da, urtez urte. Ostadar eta Ttakun elkarteek abenduaren 31n Buruntzara goiz pasa antolatzen dute. Bertaraten direnek bide ezberdinak erabiltzen dituzte hara igotzeko. Urnietaraino kotxez eta bertatik igotzea, lasartear askoren aukera izan zen. Hamaiketakoa zain zuten, San Roke ermitan. 2012an abiatu zuten ekimena, eta orain joera hori ohitura bilakatu nahiko lukete. Aspaldiko ohiturari eutsi diotenak Euskalduna mendigoizale elkarteak izan dira, 2018an ere salda ematen jarraitu baitute. Aurreko urteetan mendiko gosari beroaz Alejandro Gonzalez andoaindarra arduratzaren zen, familiaren laguntzarekin. Hura urte hasieran zendu zenetik, ohitura gastronomikoa-jarraipenari buruzko zantzaz sortu zen. Euskaldunako zuzendaritza berriak hartu du lekukoa, eta 2018koan behintzat

Gonzalez oso presente izan zen. Salda ematen jarraitzea, hari egin dakioken omenaldirik onena da. Haria eten ez den seinale.

Haize zakarra herrigunean eta alerta egoera mendialdean

Aurtengoan, haizeteak eragin ezakeen arriskuaz, erakunde ezberdinek bezperatik adi ibil-

tzeko oharra zabaldu zuten. Zentuz jokatzeko deiaren aurrean, bat baino gehiago etxean geratu zen, ezustekoak saihestuz. Beste batzuk, ordea, ezin etxean geratu eta bezperan igo ziren. Urtarrilaren 1ean hutsik egin ez zutenak Leitz BTT taldekoak izan ziren. Selfie polita partekatu zuten sare sozialetan, Adarramenditik bertatik.



San Roke ermitaren inguruan hamaiketakoa, abenduaren 31n. TXINTXARRI

Eguberrietako txapelketak Andoainen eta Urnietan

ESKUBALOIA Hitzordu klasiko bilakatuta, ikasturteko erritmoari eusteko partida baliagarriak izaten dira



Leizaran Urdina taldea garaile kadete mailan. JOXE MARI IGERATEGI

Olatz Lasa ANDOAIN/URNIETA

Nesken XVII. Errege Txapelketa ospatu zen abenduaren 30ean, Arrate pilotalekuan eta Allurralde kiroldegian. Goiz eta arratsalde eskubaloia partida ugariz gozatzeko tarte egon zen, txapelketak aurrera egin ahala, emozio une ugari eskaini zituen. Kadete mailan Leizaran Urdina taldea izan zen garailea Malkaitz Burlatoko taldearen aurka jokaturako finalean. Markagailuan hamazazpina zeudenean, penaltietan lortu zuen garaipena talde andoaindarrak (2-0).

Infantil, jubenil eta senior mailetan Nafarroako taldeak nagusitu ziren. Infantil eta jubeniletan Malkaitz taldeak lortu zuen garaipena, 17-18 eta 10-19 hurrenez hurren. Baztango taldea nagusitu zen senior mailako finalean, Leizaran etxeko

taldeari nagusitasunez irabaziz (18-30).

Arratsaldeko partidak jokatu ahal izateko, kirolariak indarrak herriko elkarte gastronomikotatik hartu zituzten, hots, Zumeatarra, Peña Santa Krutz eta Batzokia elkarteetan.

Gabonetako txapelketa Urnietan

Goiko Auto eskubaloia txapelketa ospatu zen egun berean Urnietan, infantil eta kadete mailako nesken eta mutilen taldeen parte hartzearekin.

Urnietarrek ez zuten zorte handiegirik izan, maila guztietan gonbidatutako taldeak izan baitziren nagusi. Nesken kadete mailan Gasteizko Ehariak taldeak lortu zuen garaipena. Gainontzeko mailatan –infantil neska, infantil mutila eta kadete mutila– Zarauzko ordezkariek nagusitu ziren.



Urnietako jokalariek, pozarren, herrian bertan jokatzeko txapelketan. AIURRI



Urtarrilaren 3ko jardunaldian parte hartu zuten jokalariek eta prestatzaileek, taldeko argazkian. AIURRI

Kide berriak hurbiltzeko ate irekien jardunaldia

FUTBOLA Hamar urteko zortzi neska agertu ziren saiora, urtarrilaren 3an. Euskaldunak jokatzeko duten beste hainbat jokalarirekin batera aritu ziren Ubitarte zelaian, gonbidatu bereziekin: Real Sociedadeko lehen taldeko jokalariek eta prestatzaileak

Xabier Lasa ANDOAIN

Bertan izan ziren Real Sociedad futbol taldeko Garbiñe Etxeberria, Aintzane Encinas eta Emakumezkoen ligako goleatzaileetakoa den Nahikari Garcia urrietarra. Azken hau gaztetxo askorentzat erreferentzia eta idolo bilakatu da. Euskaldunak Igor Bere, Ruben Piron eta Achraf Yerrou teknikariek batera zuzendu zuten entrenaldia. Federatu mailan aritzen ez diren gazteei begira antolatuta zuten, gazteek futbola gertutik ezagutu eta beldurrik uxatzeko. Konforme egoteko moduan daude Euskaldunakoak, deialdira erantzun zion gazte kopuruagatik eta baita erakutsi zuten jarrera eta gogoagatik.

Hurbildu zirenen artean Aiala Irulegi, Oihana Arruti, Madi Landa eta Ixiar Alkain zeuden. Goizean beldur pittin batekin agertu baziren ere, pozik irten dira entrenamendutik. Giro atsegina sumatu zuten zelaian. Datorren ikasturtean Euskaldun-

nan izena eman nahi dutela argi samar daukate. Jada hasi dira kontuak ateratzen, eta dagoeneko eskolaz kanpoko jarduerak eta Euskaldunako prestaketa saioak bateragarri nola egin pentsatzen hasita daude.

Ubitarteko prestaketa saioan laurek Elene Irigoras adiskidea izan dute ondoan. Honek ere hamar urte ditu, eta infantil

mailako taldean jokatzeko du, mutilekin batera. Zuriñe eta Albarekin batera nesken hirukotea osatzen dute mutilen taldean. Euskaldunak nesken futbolari bultzada emateko urrats sendoak ematen ari da. Fruituak eman ditzala.

Eguberrietako ate-irekien jardunaldiekin emakumezkoen murgilketan sakondu nahi dute.



Garcia, Bere, Yerrou, Piron, Etxeberria eta Encinas Ubitarte zelaian. AIURRI

KARTELDEGIA

FUTBOLA

PREFERENTE MAILA

EMAITZAK	
Euskalduna-Hernani	1-1
Urnieta-Deusto	1-2

SAILKAPENA

1	Deusto	34 puntu
2	Allerru	32 puntu
3	EAS 08	29 puntu
4	Euskalduna	28 puntu
5	Billabona	25 puntu
11	Urnieta	16 puntu

ASTEBURUKO PARTIDAK

16:00	Urnieta-Oiartzun / Lar, 13
15:30	Euskalduna-Lizeoa / Lar, 13

ERREGIONAL MAILA

ASTEBURUKO PARTIDAK

17:30	Euskalduna-Mundarro / Lar, 13
-------	-------------------------------

ERREGIONAL MAILA, NESKAK

EMAITZAK

Goierrri Gorri-Urnieta	0-0
------------------------	-----

BERTAN BEHERA ELURRAGATIK

JUBENIL MAILA, MUTILAK

IGOERAKO LIGAXKA

EMAITZAK

Urnieta A-Lengokoak B	2-2
Euskalduna A-Allerru A	5-1

SAILKAPENA

1	Beasain	3 puntu
2	Euskalduna A	3 puntu
6	Urnieta A	1 puntu
7	Aloña Mendi	0 puntu

ASTEBURUKO PARTIDAK

18:00	Allerru A-Urnieta A / Lar, 13
16:00	Orioko-Euskalduna A / Lar, 13

KOPA

ASTEBURUKO PARTIDAK

18:00	Urnieta B-Goierrri / Lar, 13
12:00	Ordizia-Euskalduna B / Lar, 13

JUBENIL MAILA, NESKAK

EMAITZAK

Intxurre-Euskalduna	0-0
---------------------	-----

BERTAN BEHERA ELURRAGATIK

KADETE MAILA, MUTILAK

OHOREZKO MAILA

EMAITZAK

Euskalduna-Antiguoko	0-4
----------------------	-----

ASTEBURUKO PARTIDA

12:45	Euskalduna-Añorga / Lar, 13
-------	-----------------------------

KOPA

ASTEBURUKO PARTIDAK

13:30	Lizeoa B-Urnieta / Lar, 13
11:00	Euskalduna-Danena B / Lar, 13

ESKUBALOIA

SENIOR MAILA, MUTILAK

EMAITZAK	
Leizaran-Urnieta	26-37

SAILKAPENA

1	Pulpo	15 puntu
2	Urnieta	15 puntu
9	Leizaran	5 puntu

ASTEBURUKO PARTIDAK

19:00	Urnieta-Egia / Lar, 13
17:30	Ormaiztegi-Leizaran / Lar, 13

SENIOR MAILA, NESKAK

EMAITZAK

Irauli-Urnieta	15-10
Munttarpe-Leizaran	22-22

SAILKAPENA

1	Irauli Bosteko	20 puntu
5	Urnieta	10 puntu
7	Leizaran	7 puntu

ASTEBURUKO PARTIDAK

12:00	Urnieta-Eibar / Ig, 14
13:00	Alaia B-Leizaran / Lar, 13

JUBENIL MAILA, MUTILAK

7-12. POSTUEN TALDEA

EMAITZAK

Leizaran-Hettich	22-26
Aloña Mendi-Urnieta	36-29

ASTEBURUKO PARTIDA

17:15	Urnieta-Leizaran / Lar, 13
-------	----------------------------

KADETE MAILA, MUTILAK

AZKEN FASEA

EMAITZAK

Irun-Urnieta	21-42
--------------	-------

ASTEBURUKO PARTIDA

15:45	Urnieta-Urola / Lar, 13
-------	-------------------------

9-16. POSTUEN TALDEA

EMAITZAK

Amenabar-Leizaran	30-28
-------------------	-------

ASTEBURUKO PARTIDA

16:00	Leizaran-Tekniner / Lar, 13
-------	-----------------------------

KADETE MAILA, NESKAK

ASTEBURUKO PARTIDAK

09:30	Bera bera - Leizaran H / Ig, 14
16:30	Irun A - Urnieta / Lar, 13
10:00	Leizaran U- Mundarro / Ig, 14

SASKIBALOIA

SENIOR MAILA, MUTILAK

ASTEBURUKO PARTIDA

19:15	Ganbara-Zarautz / Lar, 13
-------	---------------------------

KADETE MAILA, MUTILAK

ASTEBURUKO PARTIDA

09:00	Ganbara-Tolosa / Lar, 13
-------	--------------------------

HITZORDUAK

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEARTEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 11

URNIETA "Ergela" antzezlana
Joseba Apaolaza eta Sara Cozar aktoreak dira Txalo konpainiaren protagonistak, aurre estreinaldi moduko saioan. Sarrera: 5 euro.
Sarobe, 19:00.

ANDOAIN Asanblada feminista
Asanblada feminista sortzeko deialdia. Sustatzaileek hausnarketarako gunea sortu nahi dute, "gure arteko sarea indartzeko elkargunea eta zenbait ekintza aurrera eramateko"
Gaztetxea, 20:00.

OSTIRALA 12

URNIETA Odol ematea
Odola emateko deialdia.
Anbulategi zaharrean, 18:30-20:30.

ANDOAIN Erakusketa
"Nire terapia: artea" izeneko erakusketaren irekiera.
Egilea: Naiara Delgado Pérez.
Urtarrilaren 12tik otsailak 17 artean.
Bisita orduak:
18:00-20:00 Astelehena-ostirala
10:30-13:30/18:00-20:30
Larunbata
Bastero, 19:00.

ANDOAIN Antzerkia
Javier Liñeraren "Barro rojo" antzezlana ikusgai. Sarrera: 12 euro eta gazteak 3 euro.
Bastero, 21:30.

LARUNBATA 13

ESKUALDEA Txotx irekiera
Hernaniko plazan elkartuko dira, eguerdian, sagardo berria dastatzeko.

BILBO Manifestazioa
Sarek euskal presoan giza eskubideen alde manifestazioa joateko deia egin du.
Bus irteerak, eskualdetik.
Adi, Andoainen bus eskaintza bikoitza dago.
Urnieta, Matxone, 15:30.
Andoain, Makaldegia, 9:15 / 15:30.



URNIETA "Ergela" antzezlana
Proba psikologiko batzuetarako bere burua aurkeztu du protagonistak, diru pixka bat irabazteko asmoz. Tranpa eta iruzurra aurkituko ditu ordainetan.
Urtarrilak 11, osteguna. Sarobe, 19:00.

IGANDEA 14

ANDOAIN Mendi irteera
Euskalduna mendigoizale taldeak urteko lehen irteera antolatuta du Bizkaiko kostaldera. Ibilbide ikusgarria: Berme, Burgoa, Matxitxako, Gaztelugatxe, Bakio.
Irteera tren geltokiaren ondoan dagoen Kaleberriko bus geltokitik.
Kaleberria, 07:15.

ASTELEHENA 15

ESKUALDEA Txotx irekiera
Sagardoaren Lurraldeak antolatuta, 2018ko txotx boladari hasiera emateko ekitaldia antolatuko dute Astigarragan. Bertan azalduko dituzte 2017ko uztaren ezaugarri nagusiak. Ondoren, Gurutzeta sagardotegian, Alberto Iñurrategi mendizaleak "Gure Sagardo Berria" oihu eginda, lehen kupela irekiko du.
Sagardoetxea, 12:00.

ANDOAIN Inauteriak
Konpartsa eta elkarteekin bilera egiteko deialdia.
Urigin Kultura Etxea, 19:00.

ASTEARTEA 16

ANDOAIN Mahai-ingurua
"Nola egin aurrera memorian eta erreparazioan?", Laura Pego eta Gema Varonaren eskutik. Memoria eraikitzen zikloaren bigarren hitzordua, Udalak antolatuta.
Bastero, 19:00.

ANDOAIN Dantza ikastaroa
Euskal-dantza ikasi eta gozatzeko aukera; Urkiren eskutik.
Arrate, 19:00. Lehen maila.
Arrate, 20:00. Maila aurreratua..

ANDOAIN Opera proiektzioak
Giacomo Pucciniaren "Madama Butterfly" lana.
Bastero, 20:15.

OSTEGUNA, 18

ANDOAIN Ipuin kontaketa
Martxan da berriro Mintzalagunen Bidaide egitasmoa, familientzat. Maialen Zubeldia ariko da ipuinak kontatzen.
17:30ean 3-5 urte bitartekoentzat;
18:00etan 6-8 urte bitartekoentzat.
Bastero, 17:30.

ZINEMA

ANDOAIN	19:30, 22:00.	Asteartea, 16:	Ferdinand
BASTERO	Coco	20:15	Larunbata, 20:
Perfectos desconocidos	Haur emanaldia. Larunbata, 13: 17:00.	El gran showman	17:00.
Larunbata, 13: 19:30, 22:00.	Igandea, 14: 17:00.	Larunbata, 20: 19:30, 22:00.	Igandea, 21: 17:00.
Igandea, 14: 19:30.	Madama butterfly	Igandea, 21: 19:30.	Wonder wheel
Astelehena, 15:	Opera zineman.	Astelehena, 22: 19:30, 22:00.	Igandea, 28: 19:30.
			Astelehena, 29: 19:30, 22:00.

SINOPSIK



Coco
Zuz.: Lee Unkrich, Adrián Molina. **Herr.:** Estatu Batuak (2017).
Iraupena: 109 minutu.

Pixar etxeko perla berria

Musikan mito bihurtzea du amets Miguel gazteak, nahiz eta bere familiak debekatu.

Musikarako duen zalentasunak "Hildakoen Lurrean" sartzea eramango du.

Perfectos desconocidos
Zuz.: Alex de la Iglesia. **Herr.:** Espainia (2017). **Aktoreak:** Belén Rueda, Eduard Fernández, Ernesto Alterio. **Iraupena:** 96 minutu.

Alex de la Iglesiaren azken filma

Betidanik ezagutzen diren lau bikoteraren arteko afarian jolas bat proposatzen da, non norberaren sekretuak plazaratuko diren. Esaterako, afarian zehar jasotzen dituzten

mugikorrek mezuak ahots altuan irakurri edota publikoki erantzun deiei. "Perfetti sconosciuti" Paolo Genovesearen film italiarraren bertsio berria da.

Hainbat ikastaro urte hasieran

Ekintzaitza
Ekintzaitzari eduki sozial, kooperatibo eta eraldatzailea eman nahi diote, KoopFabrikako kideek. Urtarrilaren 17an abiatuko da eta bertan Gipuzkoa osoko proiektuek dute izena emateko aukera dute. Informazio gehiago: komunikazioa@koopfabrika.eus | 688 845 940 / 943 25 63 47 (Andoni Egia).

Euskal dantzak
Urtarrilaren 16an abiatuko dira dantza ikastaroak, ohi bezala, Arrate frontoi azpiko lokalean. Astean behin izango da, asteartearrekin. Hauxe da Urki 2018rako egokitu duten eskaintza: 19:00etatik aurrera hasiberriak, eta 20:00etan maila aurreratua dutenenak. Informazio gehiago: 629 375 147. Prezioa: 90 euro.

ZORION AGURRAK



ANDOAIN Malou
Zorionak giri! Jarri txanpain botilak freskatzen, ospatu behar dugu eta!! Egin dezagun topa datozen urteak ere igarotakoak baino hobek izan daitezen!!



ANDOAIN Oier
Zorionak Oier, 10 urte iada!! Ondo ospatu eta holaxe segi urte askotan!! Enara, amatxo, aitaxo eta familikoen partetik.



ANDOAIN Ilargi
Urtarrilaren 11n kuadrillako txikiak lehen urtekoa beteko du. Amatzoren lagunak partetik, muxu potolo bat ilargi!



ANDOAIN Julen
Julenek 10 urte dagoeneko! Ondo pasa zure egunean. Segi horrela. Muxu handi bat etxeko partetik.



ANDOAIN Euken Ariztimuño Balentziaga
Zorionak Euken! 8 urte bete dituzu, urtarrilaren 10ean. Jarraitu beti bezain alai! Muxu handi bat etxeko partetik.

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak webgunean eta Aiurri astekarian. Oso erraza da, eta dohainik! Hiru bide dituzu:

www.aiurri.eus

Sar zaitetz "Zorion agurrak" atalean, eta fitxa osa ezazu. Mezua eta argazkia igotzen diren unetik, urtebetetze eguner bitarte, ikusgai izango da webgunean. Ez dadila tamaina handiko argazkia izan. Tamaina editatzerik ezean, zorion-agurra helarazteko erabili ezazu posta elektronikoa.

diseinua@aiurri.eus

Mezua bidali Aiurriko posta elektronikora, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Arantzibia 4-5, behea

Etor zaitetz bulegora, Andoinera. Telefono zenbakia: 943 300 732.

MERKATU TXIKIA

Paseoko **bizikleta** beltza salgai, saski eta guzti. 125 euro. Deitu: 610 953 258.

Baserriko **intxaurreak** salgai. 671 316 863. Lurdes.

Hizkuntza eskolako irakasleak **frantseseko** klaseak ematen ditu: EOI diploma lortzeko, mintza praktikarako, enpresetarako klaseak. 665 719 827 / 943 008 059

20 urteko ikaste euskalduna ordu batzuk **lan egiteko prest**. 634 441 353

Etxean ogia egiteko labe aproposa (Moulinex. 2 urteko garan-

PARTE HARTZEKO:
Intereseko iragarkia argitaratu nahi izanez gero bidali mezu bat diseinua@aiurri.eus helbidera edota whatsapppez: 619 163 537

tia eta aseguru duena). Tel.: 620 55 49 37. Amasa-Villabona

Furgoneta salgai. 6000 euro. Prezioa ez da negoziagarria. Ohe gabe salduko da. Interesatuak deitu 685 728 024. (Ixiar)

Mahaian esertzeko eta neurri ezberdinetan jar daitekeen **umeen trona** salgai. 690 21 89 58

Hemengo **hurra** erosiko nuke. Deitu 634 409 888.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ANDOAIN

Larunbata 13 eta igandea 14 ZATARAIN GORDOA:
Elizondo plaza, 6. Arteta z/g
943 59 08 02

GAUEZ

Larunbata 13 eta igandea 14 CASTILLA-LARBURU:
Urbietea kalea, 7 Hernani
943 55 29 41

HERIOTZ-OHARRA

Iñaki Martiarena Lizarazu



2018ko urtarrilaren 7an hil zen, 68 urte zituela.

Arraun berriek eramango dute bide zaharretik askatasunera oihal zuriek haizea bildurik gure amasa biltzen den batera



IRUBERRI KULTUR ELKARTEA

HERIOTZ-OHARRA

Mila Urretabizkaia Iguaran



2018ko urtarrilaren 6an hil zen, 55 urte zituela.

Txoritxo bat bezala joan zara hegan, negu betean. Elurra mara-mara egin du dotore, zure agurrean.

Barru-barruan gordeko zaitugu.

Pertsona indartsu eta handia izan zara, Mila.

Mila esker zure irribarre, maitasun eta baikortasunagatik.

Bidaia on, maitia!

Ainhoa, Xabi eta Maddi. Villabonan, 2018ko urtarrilaren 6an.

ESKELAK JARTZEKO: 943 300 732 edo publizitatea@aiurri.eus

- Hileta egunean eskela Aiurri.eus-en + Oirogarria edo Esker ona Aiurri astekarian eta Aiurri.eus-en: 160 €/ Aiurriko harpidedunentzako 90 €
- Eskela mota guztiak Aiurri astekarian + Aiurri.eus-en: 140 €/ Aiurriko harpidedunentzako 90 €

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

Datorren Aiurri astekarian: Meteo 'eroak'

Eskelak Aiurriin: 90 euro



AZKEN BERBA

ANDONI URBISTONDO
URNIETA

'Musu-trukgintza'

Negu gorria iritsi da Urnietara. Meteorologikoa. Boluntario lanaren negua aspaldi iritsi zen. Eta pena ematen du. Izan zelako susperraldi ederra hamarkada bat atzera, baina distira garai hura itzaltzen ari delako. San Silbestre lasterketan gertatutakoa da azken adibidea. Baina adibide asko daude. Boluntario lanak, musutrukintzak etorkizun beltza du gure herrian.

Poxta Zahar elkarteak antolatzen du San Silbestre lasterketa, hainbat elkarteren laguntzarekin. Izan dira laguntza deialdiari ezezkua eman diotenak, arrazoiak jakinaraziz. Izan dira, besterik gabe, erantzunik eman ez dutenak. Tristeia. Herriar askok lasterketa korritu nahi zuen. "Nik 4.15ean egingo dut kilometroa", batek. "Buf, ni aurtan bukatzera". Korritu nahi duenak, ordea, ezin antolakuntzan lagundu... Paradoxa latza. Antolatu zen, azkenean, lagun sorta txikia erotu beharrean ibili zelako: dendetan opari bila, zerrendak uzten han eta hemen...

Sari banaketaren inguruan jendea kejaka sare sozialetan. Poxta Zahar elkarteak agiria kaleratu zuen, bere iritzia emateko. 2018ko San Silbestrea antolatzeak merezi duen hausnartuko nuke.

GUGAN BEGO



Antzerkizale, kantuzale eta aktibista izan zen Iñaki Martiarena. Argazkia, 2010eko urrikoa da. AIURRI

Iñaki Martiarena andoaindarra zendu da

Andoaingo ekintzaile, kantuzale eta antzerkizale ezaguna, joan zen igandean hil zen gaixotasun luze baten ondorioz. 68 urte zituen, eta bizi izan zen artean aldarte ona erakusten ahalegindu zen

Erredakzioa ANDOAIN

Iñaki Martiarena Lizarazu andoaindarra joan zen urtarrilaren 7an hil zen, 68 urte zituela. Ezin izan zuen gaingitu azken aldian pairatzen zuen gaitz larria. Herriar ezaguna zen, gizarte ekintzailea eta azken urteetan antzerkigintzan murgilduta ibili zena. Maitena Lizarribarren alarguna, bi semearen aita zen:

Eneko eta Aritz. Zazpi seme-alabako familian hazi zen, Andoainen aski ezaguna. Urnietarren artean ere haren bi anai-arreba aski ezagunak dira: Ixiar Urnietako EH Bilduko alkategaia azken Udal hauteskundetan edota Joxe Manuel Martiarena, 1998-1999 urteetan Eusko Jaur-laritzako Segurtasun sailburu izandakoa.

Donostiako hiri barruko bus konpainiako gidaria izan zen ogibidez, eta erretiroa hartuta bizi zen azken urteetan. Umorea handiko gizona izan zen, arte eszenikoen munduan murgiltzea erabaki zuena. Horrela, Andoaingo Katramila antzerki taldeko partaidea izan zen hasieratik. Ohikoa zen bere parte hartzea Basteron urtero antolatu ohi

zituzten emanaldietan zein kalleko ikuskizunetan. Jubilatua eta pentsiodunen Duintasuna elkarreko bultzatzaileetako izan zen. 2010ean Aiurriri eskainitako elkarrizketan, honako hausnarketa utzi zuen: "Erakundeetarik ezinduak etxean zaintzea bultzatu nahi dutela dirudi. Familiaren ardurapean utzi, diru pixka bat eman eta gero. Familia lan baldintza eskaseko enpresa bihurtu nahi dute".



Katramilako kidea zen. AIURRI

Sudur gorria, umorea zabaltzeko

Katramila taldea sortu zenean, hantxe agertu ziren Martiarena eta Esnal helduen taldean parte hartu nahian. Ahots sendoa zuen Iñaki Martiarenak, eta bere taldekideek ipuin kontalari bikaintzat zeukaten.



Datorren Aiurri astekarian: Bi urnietar profesional mailako tropelean